

Gernuarekin erreakzionatzen duen pixoihala.

Goizane Sáenz de la Fuente, Irati Castro, Marta Codesido, Garazi Sainz eta Jon Xabier Basogain.

BEZEROAREKIKO HARREMANAK.

Bezero berriak publizitatea eta sare sozialen bidez erakarriko ditugu. Sare sozialei esker bezeroekin harremanetan oso erraz jarri gaitzke, eta berriak bilatu. Zaharrak mantentzeko kanpainak egingo ditugu noizean behin, esaterako: 10 erosketa egiteagatik 11. Erosketan %20-ko deskontua izango du bezeroak.

On-line denda bezeroekin harremanetan jartzeko oso era ona dela ere badakigu. Webgunean txat zerbitzu bat ipini nahi dugu, bertan gutako batek bezeroekin zuzenean hitz egiteko aukera izango du, bezeroari dudak argitzeko eta erosketa prozesuan izan ditzakeen arazoak konpontzeko, dela banaketa enpresak ez diolako paketea bidali, dela ordaintzeko arazoak dituelako, dela edozein zalantza argitzeko. Gainera, txat zerbitzu honek bezeroak enpresarekin izandako zerbitzua baloratzeko aukera ematen du izan ere, txat-ak kalifikatu daitezke.

zopim
by zendesk

Iniciar sesión Ayuda Inglés Zendesk.com

PRODUCTO PRECIOS

Hable con sus clientes en tiempo real

El chat en vivo le permite interactuar con sus clientes de una manera más rápida y personal.

PROBAR ZOPIM

Gratis por 14 días. No se requiere tarjeta de crédito.

zopimchat

We're Online!

Escriba su mensaje aquí

Zopim da web orrian txat-a jartzeko zerbitzurik onenetakoa.

Gainera, Zopim bezalako aplikazioek aukera ematen dute enpresakoak konektatuta ez daudenean ere enpresarekin harremanetan jarraitzeko. Bezeroak bere izena, emaila eta mezu bat uzten du, enpresakoek irakurtzen dutenean bezeroari emailaz erantzuten diote.




Hortaz gure asmoa bezeroarekin etengabe harremanetan egotea da dela sare sozial bidez, dela txat bidez edo dela telefono bidez. Hainbeste plataformetan egoteak bezeroak gure marka hobeto aurkitzea eragingo du; gainera, jendeak gero eta zerbitzu azkarragoa bilatzen duenez duda gutxiago izango dute gurekin harremanetan jartzeko orduan. Askotan enpresa bati dudak argitzeko edo bere produktuei buruz galdetzeko deitzeak nolabaiteko nagikeria sortzen du eta.

Hortaz gure enpresak nolabaiteko autozerbitzu zatia izateaz aparte (on-line dendan bakoitzak bere kabuz erosten du inolako laguntzarik gabe; hala ere, gure kasuan txat zerbitzuak on-line erosketan lagundu dezake) tratu pertsonalizatu handia ere badu. Internet bidez edonor jarri daiteke harremanetan gurekin eta gure produktuei buruz informazioa eskatu eta erosketa egin badu laguntza eskatu.

Gainera aurreko atalean aipatu dugun moduan sare sozialetan ere gure produktua nola egiten dugun erakutsiko dugu eta horrek jendea erakarriko du; izan ere, beste enpresek ez dute erakusten nola egiten dituzten pixoihalak.

Uste dugu sare sozialetan gure produktua nola egiten den erakustean ere bezero asko erakarriko dituela.



Duela urte asko telebistan hainbat produktu nola egiten diren erakusten duten programak daude.